

bienik, esate baterako *Lo raro es vivir* nobela bikainean (Bizitzea da arraroa). 1996an argitaratua da; protagonistak, zeinak hil berria baitu ama, harekin zintzoki komunikatu ezinari aurre egiten dio nobela osoan barrena, *flash-back* ugariren bitartez. Badago eszena bat, idazlearen idiosinkrasia-rekin oso bat datorrena, zeinean artearen historiari buruzko azalpen suharrak ematen dituen irakasle baten elokuentziak seko lirluratsen baitu protagonista, eta lortzen, itxuraz, protagonistaren ezinegon hori zerbait behintzat

Ahozko erregistro informaleko ezaugarri ugari molde jaso eta oso landu baten ongarri gisa erabiltzera ailegatu zen

arintzea. Ordea, ikasgelaren ageritokirik kanpo, elokuentzia aienatu egiten zaio irakasleari, eta hautsi egiten da komunikazioaren sorginkeria. Komunikatu nahia- ren eta ezinaren arteko tentsio hori etengabea da Martin Gaiteren azkeneko nobeletan. *Nubosidad variable* eleberrian (Hodeitza aldakorra), bi protagonista aspaldi bananduek idazketaren bitartez bat egiten dute. Nor bere gorabeherak eta kezkek besteari kontatuz hasten dira, komunikatu behar horrek hartararuta, eta gutuntzaren gurgurpilean sartuta aurreratzen da nobela. Beste inorengana iristeko ahalegin horrek badu parte erotiko nahiko inportante bat: «Bada, labur esanda, hauxe: ezin gara beste inoren larruan sartu, lortu dugula iruditzen arren». Alderik horretan, erotika ere komunikazioa da, edo inkomunikazioa.

Solaskidearen bilaketaren gaia Carmen Martin Gaiter darabilen hizkuntzan bertan ere islatzen da. Hain zuzen, hizkuntzan bertan du idazleak lorpen literario gailetako bat. Ematen du hizkera literario bat baino gehiago hizketa literario bat garatu zuela bere idazketan, ahozko erregistroaren nolabaiteko transmutazio poetiko baten bitartez. Ahozko erregistro informaleko ezaugarri ugari (etenak eta anakolutuak, esapidak, joskerak...) tentu eta gustu handiz hautatu, eta molde oro har jaso eta oso landu baten ongarri gisa erabiltzera ailegatu zen. Gaztelaniaren estilista petoa izan zen Martin Gaiter, eta haren idatziek aho-gozagarri egiten dute hizkuntza.

Pentsamendua, idazketa eta solasa, Carmen Martin Gaiteren literaturaren hiru erpinak, guztiak bere estilo landuarekin lotuak.

Nola ekarri gogora

Irati Majuelo

W. G. Sebald idazle alemaniarren artefaktu literarioa da *Austerlitz*, etnik gabeko hizketaldi luze batez eta argazki misteriosuz osatua. Jacques Austerlitz gizon bitxia du protagonista, zeinak narrazioarekin dituen elkarriketen bidez, azaltzen duen bere iragana bilatzean sentitutako itolarria eta egindako ibilbidea. Haurra zela bere familiarengandik berezia, euren buruzko informazioa xerkatzeko eta gogorapenen bat ekartzen ahal dion edozer argazkiratzeko beharra du; baina baita eraikin zaharrei zein sisei behatzeko ere.

Denboraren eta espazioaren arteko harremanetan sustraitzen da eleberri honen muina, idazleak giltzarri gisara erabiltzen baititu protagonistaren memoria berreraikitze saioan oroitzapenak zein hutsarteak harilkatze-

ko. Testuan agertzen diren espazioen nolokotasuna askotarikoa bada ere, era berezian nabarmentzen dira geltokiak, antzokiak eta gotorlekuak, eta horien kupulak, kapitelak, galeriak, leihoak. Hasiara batean hutsalak irudi dezaketzen apunte arkitektoniko akademikoek haratago, espazioek esangura sinboliko garrantzitsua dute, eta iraganare-



'Austerlitz'

Idazlea: W. G. Sebald. Itzulzailea: Idoia Santamaria. Argitaletxea: Igega.

kin konektatzeko katalizatzaile modura funtzionatzen dute, oroipen proustiarrera hurbilduz sarri. Austerlitzaren memoria, gotorleku zaharkitu baten antzerakoa bizi ia osoan zehar, gutxina- ka desarmatzen joaten da kontakizunean barrena, ohartuta zementu gotorrezko horma itxiek bere izatea arrotzeko baino ez diotela balio izan.

Hala, protagonistaren bizitza berreraiki ahala, XX. mendeko Europaren historia azaleratzen da txatalka, eta, hortaz, memoria historikoaren sarea josten du, ia erreparatu gabe, pertsonaletik kolektiborako jauziak gogoramen eta ikerketaren hariekin txirikordatzean. Ildo horretan, oroitzapenaren mekanismoei buruzkoak dira Austerlitzaren kezka nagusiak: nola ekarri gogora inoiz ahaztu zena? Behin eta berri- berri errepikatzen duenez, inongo lege ezagunen bidez azal ezin daitekeen zerbaiti esker itzultzen dira irudiak, hitzak, pertsonak gure burura; behartu gabe, berriaz saiatu gabe. Horrekin lotuta, adierazgarria da Sebalden maisutasunez erabiltzen duela kasualitatearen baliabidea, bere elebe-

riaren garapenerako ezinbestekoa, baina inolaz ere bortxaz baliatu. Protagonistak, honenbestez, zerbait hori estimulatzeko igarotzen ditu urteak, deserro- tzeak eragindako identitate gale- ra arindu nahian.

Eleberri dentsoa da, ezin daiteke uka, baina trinkotasun horren barnean bada marea- mugimendu bat harrapatu eta ezinbestean erakertzen duena irakurlea ia atsedetik gabeko hizketaldian aurrera segitzera. Geruza ugari ditu istorioak, bata bestearekin batzen doazen ahots sedimentatuen kontakizuna baita. Hori dela eta, berezko erritmo geldoari arnasguneak erantzen dizkio idazleak, pertso- na bakoitzaren ekarpena ondokoarenarekin kateatuz osatzen delarik diskurtso osoa.

Nabarmendu beharrekoa da Idoia Santamariak egin duen itzulpena. Izan ere, alemanezko perpaus-kate luze eta korapilatsuak, hizlari aldaketa etengabeak eta zehaztasun izugarriko le- xikoak euskara bikain eta irakur- garrian ematea ez da edonolako lana. Akatsik gabeko euskara- tzea, zinez.

Atzerrian eskolaratzea

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Gurasoen lan kontuen- gatik doaz Amerike- tara urtebete bizitze- ra. Wisconsin estatut- erario bat baino gehiago hizketa literario bat garatu zuela bere idazketan, ahozko erregistroaren nolabaiteko transmutazio poetiko baten bitartez. Ahozko erregistro informaleko ezaugarri ugari (etenak eta anakolutuak, esapidak, joskerak...) tentu eta gustu handiz hautatu, eta molde oro har jaso eta oso landu baten ongarri gisa erabiltzera ailegatu zen. Gaztelaniaren estilista petoa izan zen Martin Gaiter, eta haren idatziek aho-gozagarri egiten dute hizkuntza.

13 urteko Maia da protagonista, hasieratik bukaerara pertsona zintzoa izango dena, esanekoa, lagunen laguna. Gurasoak eta neba tarteka baino ez ditugu antzemango, Maiaren gertakizune- tan rolen bat jokatzen dutenean.


Kapitulu laburrez osatutako kontakizuna da, lauzpabost orrialde, batez beste. Kapitulu- en izenburuak narrazioarekin izango den pertsonaiaren izenak dira.

Maiaren eskolaratzea eta ber-

tako adiskidetzak dira trama osatzeko erabili den osagai nagusia. Batik bat Ayla, lagun min izango duena, baina baita Nathan eta Hannah ere, bakoitza bere rolean.

Korapilola gelako neska lide- rrak tenkatuko du, Maiaren pre- sentziak bere interesak arriskuan jar ditzakeela iruditzen zaionetik, manipulazio ariketarik egiten has- ten baita, Maia baztertzeko.

Ez harritu haurtzako tele- sail estatubatuarrek burura ba- datozkizu.



'Etetik Ameriketara'

Idazlea: Enara Garmendia. Argitaletxea: Erein.

Atsegina helburu denean

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburuen kartzelatik libe- ratu behar ditugu bak- terioak eta mikrobio- ak!», aldarrikatzen du Naroak, horregatik zabalik uzten ditu, bizkarretik heldu eta astin- du ostein, etxean nonahi. Sikiera irakurriko balitu, diote etsita gu- rasoei.

Horra liburu honen funts na- gusia (barka iezadazu irakurketa zapuztu badizut, bereziki haurra bazara). Irakurleak, jakina, ipui- na ia amaieraraino irakurri be- harko du misterioa argitzeko, ze- ren liburu honek irakurtzen segi- tzeko eskaintzen duen amua bai- ta Naroaren obsesio hau zergatik ote den, zergatik hiru alditan oihukatu dugun letra larriz libu- ruez planeta hondatzen dutela!

Ez da hemen amaitzen testuan aurkituko duguna. Tramaren ia

hasieratik, zakur galdu baten bi- laketa, topaketa, eta ondorengo pasadizoek ematen diote migi- mendua kontakizunari; besteak beste topatutakoa ez delako za- kur galdua, kaleko zakurra bai- zik.

Pikotxean bildumako parte izanik (hau bosgarrena, eta dago- eneko zazpi titulu plazaratu di- tutze), ez du harritzen kontaki- zunak duen logika falta, fantasia- ra hurbiltzeko grina eta absurdo umoretsuaren xaramela.



'Irakurtzen ez zekien zakurra'

Idazlea: Koldo Izagirre. Ilustratzailea: Irriarmar. Argitaletxea: Erein.